



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
DSS2016.EU



ENERGIA-OLATUAK
OLAS DE ENERGÍA

Easo kalea, 43
Donostia/ San Sebastián
20006 Spain

www.dss2016.eu
info@dss2016.eu

T +34 943 483 344

Energia-olatuak (20.160 €).

2015eko deialdia



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE EDUCACIÓN, CULTURA
Y DEPORTE

SECRETARÍA
DE ESTADO
DE CULTURA





Edukien aurkibidea

Energia-olatuak (20.160 €).....	1
2015eko deialdia.....	1
Hitzaurrea.....	3
Energia-olatuak programaren oinarriak.....	3
I. Deialdiaren xedea.....	3
II. Eskatzailearen betebeharrak.....	3
III. Proiektuaren betebeharrak.....	4
IV. Diru laguntzen zenbatekoa eta ordainketa modua.....	4
V. Dokumentazioa aurkezteko epeak eta moduak.....	4
VI. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.....	5
VII. Proiektuen aztertzea eta hautatzea.....	5
VIII. Diru-laguntzen ebazpen datak.....	5
IX. Diru-laguntza ordaintzea.....	5
X. Proiektuen eta DSS2016EUren arteko harremana.....	6
XI. Komunikazioaren inguruko betebeharrak.....	6
XII. Jarraipen batzordea.....	6
XIII. Diru-laguntza zuritzea eta onuradunen betebeharrak.....	6
XIV. Diru-laguntza itzultzea.....	7
XV. Oinarrien interpretazioaz eta hauen onartzeaz.....	7



Hitzaurrea.

Dokumentu honen bidez **Energia olatuak** programako diru-laguntzak egiten du Fundación Donostia/San Sebastián 2016 Fundazioak (Hemendik aurrera DSS2016EU). Fundazio honek bere jardueran atzemandako behar bati erantzun nahi dio. Hain zuzen ere, herritarrek DSS2016EUra hainbat kultur jarduera gauzatzeko laguntza bila jo dutenean, erakunde honek erantzuteko izan dituen zailtasunei aurre egitea da Energia olatuak egitasmoaren xedea. DSS2016EU-ren arduradunek garrantzitsutzat jotzen dituzte herritarrek sortutako eta garatutako ekimenak; besteak beste, txikiak izan arren ingurune jakin baten kultur-osasunaren adierazle direlako. Hori dela eta, DSS2016EUK ekimen horiek sustatzeko ekimen hau prestatu du.

Herritarren parte hartzea eta alor sozio kulturalako ekimenak gizartean sustatzea bilatzen du deialdi honek. Horretarako, hiriburutzaren balioekin bat datozen herritarren eta elkarten ezohiko proiektuak laguntzea da Energia-olatuak programaren helburua. Era berean, deialdiak aintzat hartzen duen eremuko kultur eragileen arteko harremanak sustatzea eta indartzea du helburu.

Modu berean, herritarren parte hartzearen helburuarekin bat eginez, deialdiak erabakimena ere herritarren esku utziko du. Horretarako herritarrek osatutako organo batek edukiko du ebazpenak egiteko ardura zuzena.

Energia-olatuak programaren oinarriak.

I. Deialdiaren xedea.

Energia Olatuak diru-laguntza programaren barruko deialdi honen xedea Fundación Donostia/San Sebastián 2016 Fundazioak herritarren sormen ekimenak babestea eta laguntzea da, Europako Kultur Hiriburutzaren ekimenaren barruan.

Deialdi honen diru-laguntzak berariazko oinarri hauek jarraituz ebatziko dira.

II. Eskatzailearen betebeharrak.

Europar Batasuneko edozein herritarrek edo legalki eraturako irabazi asmorik gabeko elkarten eskatu ahal izango du Energia Olatuen diru-laguntza. Adin txikikoek zein pertsona ezgaituek proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte, betiere legezko tutore batek egiten baldin badu eskaera.

Justifikatzeko diru laguntzak dituzten onuradunei ezin izango zaie diru laguntza gehiagorik eman, justifikazio horretarako ezarritako epemuga bete ondoren.

Era berean, ezin izango zaie diru laguntzarik eman aurretik emandako diru laguntzak guztiz edo zati batean itzultzeko dituzten onuradunei, itzuli beharreko kopurua sartu izana egiaztatzen ez duten bitartean.

Elkarten kasuan, entitate eskatzaileak egunean izan behar ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak, indarrean dagoen



legediak agindu bezala.

III. Proiektuaren betebeharrak.

Proiektuak kultur, kirol eta gizarte arlokoak izango dira, eta oro har DSS2016EUREN helburuekin bat egingo dute. Proiektuek hauetako ezaugarri bat baino gehiagorekin bat etorri beharko dute.:

- 1) Pertsonengandik eta pertsonentzat; hiriko biztanle guztien parte-hartzea bilatuko duena, beti bertan bizi direnena zein aldi baterako etorritakoena, eta bertokoak direnena edo munduko beste leku batetik etorritakoena.
- 2) Askatasun arduratsuaren, giza duintasunaren eta elkar ulertzearen balioak indartuko dituena, batez ere gazteentzako ekimen artistikoen bitartez.
- 3) Tokikoa denean oinarritutako nortasun europar lotzaile bat eraikitzen lagunduko duena.
- 4) Bitartekaritza artistikoaren garrantzia aldarrikatuko duena eta berezkoa zaion sortze prozesua azaleratuko duena, modu horretara herritarren ahalduntzea eta parte-hartze aktiboa sustatzeko.
- 5) Epe baten barruan inpaktu iraunkor bat eragingo duen ezaugarri edo osagai berritzaile bat duten ekimenak sustatuko dituena.
- 6) Ezagutza eta guztion hobe beharra bultzatuko dituena, eta pentsaeraren aldaketari lotuta, lankidetzaren eta gaikuntza-modu berriak sustatuko dituena.
- 7) Hizkuntza eta kultur aniztasunaren iraunkortasuna ziurtatzeko modu berriak bilatuko dituena

Ezin hautazkoak gertatuko dira Giza Eskubideen kontra eta Berdintasun arauen kontra egiten duten proiektuak.

IV. Diru laguntzen zenbatekoa eta ordainketa modua.

Energia Olatuak programaren helburua betetzera zuzenduko diren baliabide ekonomikoak xede horretarako aurrekontuetan ezarritako kredituetatik etorriko dira, 2015rako aurreikusia dagoen haien gehienezko zenbatekoa 120.960 eurokoa izango dela.

Deialdi honen barruan, 20.160 euroko 6 diru-laguntza banatuko ditu Energia Olatuak programak 2015ean zehar.

V. Dokumentazioa aurkezteko epeak eta moduak.

Energia Olatuak programak urte osoan zehar deialdi ireki eta etengabea izango du, eskaerak 2015eko abenduaren 31era arte hartuko direlarik.

Eskabideak posta elektronikoz, posta arruntez eta Fundazioaren egoitzan bertan entregatu ahal izango dira. Horretarako hauek izango dira helbide egokiak.



Posta elektronikoaren bidez: eo@dss2016.eu

Posta arrunta zein modu presentzian:

Energia Olatuak

Easo kalea, 43 - 2. Solairua.

Donostia 20.006 (Gipuzkoa)

VI. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Diru-laguntza eskaera egiteko berariaz prestatutako formularioa bete beharko da. Hori izango da aurkeztu beharreko dokumentu bakarra; hala ere, programaren arduradunak eskatzailearekin harremanetan jarri ahal izango dira informazioaren inguruko zehaztapenak zein informazio osagarria eskatzeko. Eskatzaileak 10 eguneko epea izango du informazio gehigarri hori aurkezteko.

VII. Proiektuen aztertzea eta hautatzea.

DSS2016EUk bere gain hartuko du programaren inplementazioa. Hautapena, ordea, berariaz sortuko den *Ardora* herritarren batzordeak egingo du. Ardoraren osaera eta funtzionamendua DSS2016EU webgunean kontsulta daiteke. Modu honetan herritarren batzordeak DSS2016EUri proposatuko dio hautatutako proiektuak diruz laguntzea eta programa honen komunikazio euskarrietan txertatzea.

Horrenbestez, DSS2016EUren gain geldituko da diru-laguntzen inguruko lan administratiboa, eskabideak formalki egokiak diren aztertzea eta jakinarazpenak zein onarpenak bideratzea.

Aukeratu gabeak gertatzen diren proiektuek berriro eskatu ahal izango dute diru-laguntza; horretarako eskaera berriro egin beharko dute.

VIII. Diru-laguntzen ebazpen datak.

Hilabete bakoitzaren 15ean, edo hurrengo lan egunean, herritarren batzordeak hautatuko ditu hilabete horretako onuradunak, aurreko hilabete naturalean jasotako proposamenen artean. Era berean, DSS2016EU hurrengo bi lan egunetan emango die hautaketaren berri laguntza eskatzaileei.

Hautaketaren berri jaso ondoren, onuradunak diru-laguntzaren onarpen idatzi bat aurkeztu beharko dio DSS2016EUri, horretarako V. atalean adierazten diren edozein bide erabiliz.

IX. Diru-laguntza ordaintzea

Proiektuen izaeraren arabera, bi ordainketa modu aurreikusten ditu DSS2016EUk:

- a) Batetik, diru-laguntzaren ordainketa bi zatitan egingo da.

Lehen zatian, diru-laguntzaren kopurutik %60 ordainduko da, diru-laguntza onarpena jaso eta hilabete baten barruan; bigarren zatian, kopuru osoaren %40 ordainduko da egindako programa edo jardueraren zuriketa egin ondoren.



b) Bestetik, zenbateko osoa ordainduko da onarpena jaso eta hilabete bateko epearen barruan.

DSS2016EUK erabakiko du onuradunari zein ordainketa mota egokituko dion eta erabakia hau ebazpenarekin batera jakinaraziko dio.

X. Proiektuen eta DSS2016EUREN arteko harremana.

Proiektuaren jabetza, eta honen gaineko erabateko erantzukizuna proposamenaren sustatzaileena izango da; beraien ardura izango da jarduera egoki gauzatzea. .

DSS2016EUK ez du diruz lagundutako jardueretan gerta daitezkeen inguru inolako erantzukizunik bere gain hartuko.

XI. Komunikazioaren inguruko betebeharrak.

Fundazioak bere agendan sartuko ditu programa honetan diruz-lagundutako proposamenen ekimenak. Horretarako, onuradunek Donostia 2016 Fundazioari helarazi beharko dizkiote beraien ekimenen datuak agendan egoki ager daitezen.

Bestalde, diru-lagundutako proiektuetan sortuko diren euskarrietan Energia Olatuak programaren logoa jarri beharko dute eta, Donostia 2016 Fundazioak diruz-lagundutako ekimena dela adierazi beharko dute ondoko esaldia txertatuz: *Energia-olatuak bultzatuta.*

Era berean, Donostia 2016 Fundazioak diruz lagundutako ekimena Energia olatuak programan txertatuko du eta horren irudiak baliatu ahal izango ditu DSS2016EU orokorraren komunikazio eginkizunetarako.

XII. Jarraipen batzordea.

Esleitutako diru-laguntzen jarraipen egokia egiteko, jarraipen batzorde bat izendatuko da. Batzordea DSS2016EUKo eta Ardora herritarren batzordeko bina kidek osatuko dute.

Batzordeak nahi adina bilera eskatu ahal izango dizkio diru-laguntzaren jasotzaileari, adierazitako proiektua behar bezala betetzen dela ziurtatzeko asmoz betiere.

Batzordeari dagokio, era berean, proiektuaren jatorrizko izaera aldatuko duten moldaketak onartzea. Batzordeak iritziko balu deialdian ezarritako edo diru-laguntza eskaeran adierazitako baldintzak ez direla behar bezala bete, diru-laguntza onarpena bertan behera utzi ahal izango da, erabaki horren txosten justifikagarria Ardora herritarren batzordeko kideei bidali ondoren.

XIII. Diru-laguntza zuritzea eta onuradunen betebeharrak.

Onuradunek, onarpen agiria sinatuta, proiektuak gauzatzeko eta zuritzeko konpromisoa hartzen dute. Era berean, onarpena formalki egitean, Aepigrafe honetan ezartzen dena betetzera behartuak daude.

Aurkez daitezkeen proiektuen nolako zabala kontuan harturik, zuritzea



aurkezteko epea proiektuaren izaeren arabera ezarriko da; hala ere, ekimena bukatutzat jo eta 30 eguneko epean aurkeztu beharko da zuritze dokumentua.

Zehazki, honako dokumentuak helarazi beharko ditu onuradunak:

- 1) Diru-laguntzaren zuritze dokumentua.
- 2) Diruz lagundutako jardueraren oroitidazkia.
- 3) Diruz lagundutako jardueraren material grafikoa.

XIV. Diru-laguntza itzultzea.

Onuradunak jaso ahal izan duen ekarpena itzuli beharko du, diruaren legezko interesaz gainera –ekarritako kopuruak ordaindu diren unetik aurrera–, honako edozein kasutan:

- Oinarri hauetan edo onartze dokumentuan, kasuak kasu, jasotako betebeharren ez betetze larria eta errepikatua.
- Ekarpeneren xedea justifikatzeko betebeharra ez betetzea, kasuak kasu, oinarri hauetan edo onartze dokumentuan, jasotako baldintzetan, eta xedea behar adina ez justifikatzea.
- Onuradunaren jardueraren gainean egin litezkeen haren baieztapen eta ikuskapen jardunekiko erresistentzia, aitzakia edo aurkakotasuna, kontabilitateko betebeharrak, erregistrokoak eta dokumentuak gordetzekoak barne direla; horren ondorioz ezinezkoa denean egiaztatzea jasotako ekarpeneren erabilera, finantzatutako jardueren egiazkotasuna eta erregularizazioa, edota xede bererako diru laguntzak, bestelako laguntzak, sarrerak edo baliabideak batera izatea, horiek edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik, nazionaletatik, Europar Batasunekoetatik nahiz nazioarteko erakundeetatik datozela ere.
- Jardueraren gehiegizko finantziazio bada, ez gastatutako edo gehiegizko kantitatean.
- Ekarpena itzuli behar izango da, DSS2016EUren aldetik egiaztapena egin ondoren eta onuradunari igorri eta gero, jarraian adierazten diren baldintzetan, oinarri hauetan ezarritako arrazoiren bat suertatzen bada.
- Itzulketa laurogeia hamar (90) egun naturaleko epean egin beharko da, DSS2016k, burofax bidez, onuradunari oinarri hauetan aurreikusitako itzulketa arrazoietakoren bat bidaliz gero.
- Lehen adierazitako arrazoiren bat suertatuz gero, onuradunak, era berean, ordaintzeko legezkiekeen kopuruak jasotzeko eskubidea galduko luke.

XV. Oinarrien interpretazioaz eta hauen onartzeaz.

Deialdi honetan parte-hartzeak arau hauek guztiak onartzea dakar.

Era berean, herritarrek osatutako epaimahaiaren erabakia burujabe eta apelaezina izango da. Arautegi honetan jasotzen ez den edozein gorabeheratan, DSS2016EUK izango du erabakitze ahalmena.